

Musean kontuak oker datoz

Gutxi gora behera 40 urte dira Mus Txapelketa egiten dela egungo DADeko –beste garai batean CYAko, CAMeko enplegatuen elkarte zaharreko (On Bide)...– kideen artean.

Mikel Villanueva, Patxi Domínguez, Juan Mari Antia, Raimundo, Mitxel Alonso, Txuri, Juanjo Escribano,...eta esan gabe utzi ditugun beste askok (batez ere CAMekoek, gu CAPetik etorriak baikara) zuziari, gure arbasoen jokoaren (musa), hainbeste arratsalde on eta “txar” pasarazi dizkigun jokoaren, zuziari pizturik eutsi diote ia mende-erdiz!

Raimundo handia izan zen Kutxen arteko I. Mus Txapelketa antolatu eta bultzatu zuena duela 33 urte. Aurtan, ez estutasunik gabe (gero eta Kutxa gutxiago baitago, eta, beraz, gero eta gutxiago dira parte hartzen duten elkarteak), Kutxen arteko XXXIII. Mus Txapelketa jokatu da Segovian.

Baina goazen harira. Ez da bakarrik aurrezki-kutzak etengabe itxiz joatea kutxen arteko txapelketa hau itotzen ari dena. Barruan ere, gure Kutxan, parte-hartzea urtez urte gutxituz doa pixkanaka. Mantentzen bada, erretiratuei eta aurretik erretiratuei esker da. Jarduneko enplegatuek, salbuespen ohoragarri batzuk gorabehera (zorionak berauei beren iraunkortasunagatik), beste aldera begiratzen dute joko honetaz hitz egiterakoan.

DADeko arduradunek esan digute ohar bat egiteko, ohi bezala, azken txapelketari buruzko argibideak emanez: parte-hartzaileak, irabazleak, hauen argazkiak... DAD Kutxaren webgunean argitaratu eta erakusteko.

20 bikote, 40 parte-hartzaile, izan dira maiatzean DAD Kutxaren 2019ko ohiko Mus Txapelketan murgilduta.

Fase pare baten eta partida etengabe, gogor eta lehiatuen ondoren, Carlos Beristain eta Ignacio Zulaika izan ziren maiatzaren 31n ohiko Txapelketaren irabazleak. Txapelak jantzi ahal izateko Mikel Izagirre eta Juan Martínez garaitu behar izan zituzten final zirrargarrian. Hirugarren tokia Juan Mari Antia eta Jesús Pérez Brisimiri-rentzat izan zen, ezin bestela izan eta oso partida lehiatua jokatu ondoren Koldo Sulibarria eta Juan Carlos Ruiz de Gaunaren aurka. Lehenengoek eta bigarrenek zenbait sari kateatu zituzten: txapela lehenengoentzat eta DAD Kutxaren ordezkari izateko gonbidapena bientzat Kutxen arteko Txapelketan, Segovian, urriaren bukaeran. Hirugarrenek eta laugarrenek beren sariak jaso zituzten eta Akueduktua ikusteko erreserban geratu dira.

Sariak emateko afari alai eta bizi baten ostean, Txapelketa lasterra jokatu zen. K.O. txapelketa honetan, partida bat galtzen baduzu, kanpora joaten zara, eta parte-hartzaile guztiek izaten dute sariren bat jenerotan. Lehenengo kanporatuak kopetilun joan ziren, eta “kalitate bikaineko” 6 garagardoko pack batekin. Hurrengo txandan, gazta ezin gozoago bat irabazi zuten galtzaileek. Maila bat gorago, zorte gutxiago izan zutenek Kantauriko antxoia eta hegaluze pack batekin joan ziren etxera. Eta beldur izaten zaion final desiratuan, Aurelio

Acerak eta Felipe Alkortak aurkariak garbitu zituzten eta Gijueloko txerri-besoa eraman zuten, jatorri oneko eta ahogozo hobeko urdaiazpikoa. Mitxel Alonsok eta Xabier Unanuek, beste finalistek, porrotaren malakoak xukatu zituzten % 100 iberikoak diren txorizo eta saltxitxoiekin, honezkero ogitarteko ederretan desagertuko zirenak beraien eta ingurukoen artean.

Ezinbestean, gu honetaz baliatzen gara zuek animatzeko etengabe dauden txapelketetan parte hartzera, behin eta berriro antolatzen dira eta. Urrutira gabe, aurtengo urtearen bukaeran, Txapelketa bat antolatzeko asmoa dago, 40 karten artean errege bila daramatzagun 40 urteak ospatzeko. **40**a izango da ekitaldiko leit motiva. Egun bakar bateko jarduera izango da. Babajana barne izango da 'sakramentu' guztiarekin eta gero mus-partidak giro ezin hobean, eta kubatak galtzaileek ordaintzekotan.

Bukaeran parte-hartzaile guztiak poz-pezik etxeratuko dira egun bikaina pasa ondoren eta oparixoren batekin ezkontide eta seme-alabekin (baldin badaude, edo bestela bilobekin, ahalik eta gehien!!!) partekatzen. Laster emango da 40. urteurren honen berri hedabide honetan bertan, eta kide guztiak animatzen ditugu jarduera honetarako izena ematera, eguerdian elkartu eta arratsaldea pasatzeko izango baita. Ea lortzen dugun muslari berriak zirikatzea eta egun honetarako izena ematea. Bizigarri zerbait behar dugu eta emakumezkoek ere utz dezatela beren arrastoa "euskaldunen aspaldi-aspaldiko joko" honetan.

Mus 2019 – Antolakuntza

Agur eta milesker!!